

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

4767

EBAZPENA, 2021eko uztailaren 26koa, Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularren zuzendariarena, zeinaren bidez formulatzen baita lurretako (Bizkaia) Padureta etxebizitza-sektoreko Plan Partzialaren barruko lehenengo aldaketaren ingurumen-txosten estrategikoa.

AURREKARIAK

2021eko otsailaren 12an, lurretako Udalak lurretako Padureta etxebizitza-sektoreko Plan Partzialaren barruko lehenengo aldaketari buruzko (aurrerantzean, Planaren Aldaketa) ingurumen-txosten estrategikoa egiteko eskaera aurkeztu zion ingurumen-organoari, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legean xedatutakoaren arabera. Eskabidearekin batera, zenbait dokumentu aurkeztu ziren, hala nola Planaren zirriborroa eta ingurumen-dokumentu estrategikoa, zeinak abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 16. eta 29. artikuluetan xedatutako edukia baitzuen.

21/2013 Legearen 30. artikulua aplikatuta, 2021eko otsailaren 22an Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularren Zuzendaritzak kontsulta-izapidea egin zien administrazio publiko ukituei eta interesdunei; jasotako erantzunen emaitzak espedientean bildu dira. Halaber, espedientean jasotako dokumentuak eskuragarri egon ziren Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean, interesdun orok ingurumenaren arloan egokitzen zituen oharra egin ahal izateko.

Legezko erantzun-epea amaitu, eta espedientean jasotako txostenak aztertuta, egiaztatu da ingurumen-organoak baduela ingurumen-txosten estrategikoa egiteko behar beste judizio-ementu, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 30. artikuluari jarraikiz.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Ingurumen-ebaluazioari buruzko Legearen (abenduaren 9ko 21/2013 Legea) 1. artikuluan ezarritakoaren arabera, lege horren helburua da ingurumenean ondorio esanguratsuak izan ditzaketen plan, programa eta proiektuen ingurumen-ebaluazioa arautuko duten oinarriak ezartzea; horrela, ingurumenaren babes-maila handia bermatuko da, garapen jasangarria sustatzeko helburuarekin.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 6.2 artikuluan jasotako kasuen artean dago lurretako Padureta etxebizitza-sektoreko Plan Partzialaren barruko lehenengo aldaketa. Izan ere, artikulua horretan ezartzen da zein diren ingurumen-organoak egindako ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatutik pasatu behar diren plan eta programak honako hauek zehazteko: planak edo programak ez duela eragin nabarmenik ingurumenean ingurumen-txosten estrategikoan ezarritakoaren arabera, edo plan edo programen gaineko ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoa egin beharra, haiek ingurumenerako eragin nabarmenak ekar litzaketelako.

Ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatua egiteko prozedura abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 29. artikulutik 32. artikulura bitartean dago araututa, V. eranskinean ezarritako irizpideen arabera.

Planaren Aldaketaren ingurumen-ebaluazioaren espedienteko dokumentazio teknikoa eta txostenak aztertu ostean, eta kontuan hartuta ingurumen-ebaluazio estrategikoa zuzena eta indarreko araudian ezarritako alderdien arabera dela, ingurumen-txosten estrategiko hau ematen du

2021eko irailaren 16a, osteguna

Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzak (eskumena duen organoa da, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 68/2021 Dekretuaren arabera). Ingurumen-txosten estrategiko honetan, Planaren Aldaketak ingurumenean ondorio esanguratsuak izan ditzakeen edo ez aztertzen da, eta, ondorioz, ingurumen-ebaluazio estrategiko arruntaren prozedura bete behar duen, edota, bestela, zer baldintzatan garatu behar den Plana, ingurumena behar bezala babeste aldera.

Hauek guztiak aztertu dira: 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen-ebaluazioari buruzkoa; 68/2021 Dekretua, otsailaren 23koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duena; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; eta 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzkoa; eta aplikatzekoak diren gainerako arauak. Horrenbestez, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– lurretako Padureta etxebizitza-sektoreko Plan Partzialaren barruko lehenengo aldaketaren ingurumen-txosten estrategikoa formulatzea. Hona hemen txostenaren edukia:

A) Planaren deskribapena: helburuak eta jarduketak.

Planaren Aldaketaren eremua Padureta sektoreari dagokio. 72.381 m²-ko azalera du eta lurretako udalerriko Plangintzako Arau Subsidiarioek zehazten dutenez (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 2001eko abenduaren 3koa), bizitegi-lurzoru urbanizagarriko sektore bat da (BLUS) – Padureta.

Sektorea garatzeko Plan Partziala behin betiko onartu zen ekainaren 28ko 1105/2006 Foru Aginduaren bidez. Hala ere, exekuzioa geldiarazi egin zen, 2007/60/EE Zuzentarauaren transposizioaren ondorioz. Zuzentarau horren bidez, Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Uholde Arriskua Kudeatzeko Plana (UAKP) egin zen, eta bertan, Durangoko Uholde Arrisku Handiko Eremurako (UAHE) aurreikusitako babes-jarduketak barne hartu ziren.

Planaren Aldaketaren helburua da indarrean dagoen Plan Partziala 2007/60/EE Zuzentarauaren transposizioetik eratorritako zehaztapenetara egokitzea, jabari publiko hidraulikoa babesteko eta uholde-arriskua prebenitzeko. Aldaketak, funtsean, urbanizazioak Ibaizabal ibaiaren eskuinaldearekiko dituen ubide-atzeratzeei eragiten die; horrek esan nahi du aurrez sektorearen hegoaldean definitutako dentsitate txikiko bizitegi-eremua eta bide-tartea kenduko direla, eta, horren ordez, espazio libre bat antolatuko dela.

Proposatutako Planaren Aldaketan jasotako antolamenduaren helburuak eta irizpideak honako puntu hauetan laburbiltzen dira:

- Indarrean dauden lurreta udalerriko Plangintzako Arau Subsidiarioetan ezarritako zehaztapenak formalizatzea.
- Antolamendua uren arloan eskumena duen administrazioak ezarritako irizpideetara egokitzea.
- Ibaizabal ibaiaren ertzean parke handi bat eta oinezkoentzako pasealeku bat sortzea, eta hura sektoreko espazio libreen multzoan sartzea, bai eta udalerriko bizitegi-lurzoruaren multzoan ere.
- Bidegorri-zati bat aurreikustea eremuko bizikleta-sarea osatzeko, tokiko komunikazio-sistemen barruan.

– Udalerriri Udalak tasatutako prezioan etxebizitza eskaintza nahikoa ematea, egoera ahulean dauden sektore sozioekonomikoak merkatuan sartu ahal izateko.

– Egoiliarrentzako aparkalekuak sortzeko aukera ematea eta sektorearen ingurunerako erabilgarria izatea, bertan defizit handia baitago.

Jarduketa-eremuak 72.381 m²-ko azalera du; horietatik 55.998 m² lurzoru publikoari dagozkio eta 16.383 m² lurzoru pribatuari. Babes publikoko etxebizitza-gunerako (E lurzatia, 2.775 m²-koa), bi bloke eraikitzea aurreikusi da, beheko solairuan ataripe batez lotuak eta guztira 61 etxebizitzaz osatuak. Etxebizitza libre kolektiboko gunerako (A, B eta C lurzatiak, 11.900 m²-koak) 244 etxebizitza aurreikusi dira, 3 azpieroemutan banatuta. F lurzatiak (1.562 m² izango ditu) ekipamendu pribatu bat izango du.

Eraikin guztiek sotoak edo sestra azpiko garajeak dituzte.

Espazio libreak bi multzotan banatu dira. Alde batetik, lorategi eta jolasguneetarako ELak egongo dira, 10.143 m²-ko azalerakoak, sektorearen erdigunean kokatuta, eta auzo osorako pasealeku eta herriko plaza multzo bat osatuko dute. Beste aldetik, babeseko ELa egongo da, ibaiertzeko parke bat, 28.273 m²-koa, zeina partzialki urpean geratu ahal izango baita, Ibaizabal ibaiko uholde-arriskuaren ondorioz.

Aurreikusitako zuzkidurak kontuan hartuta, G lurzati bat antolatu da ekipamendu sozial gisa (902 m²), H lurzati bat eskolaurreko irakaskuntza-ekipamendu gisa (912 m²) eta I lurzati bat eskolako irakaskuntza-ekipamendu gisa (4.089 m²).

Azkenik, barneko errepide-sarean bi puntutan Maspe kalearekin lotuko duen bide nagusi bat egongo da eta indarreko Plan Partzialean proposatutako Ibaizabal ibaiarekiko errepide paraleloa kenduko da. Ereduaren ekialdean lur gaineko aparkaleku bat antolatuko da, gutxi gorabehera 140 plazakoa.

Planaren Aldaketak ez dakar indarreko plangintzan aurreikusitako eraikigarritasuna, okupazioa edo etxebizitza-kopurua handitzea.

Aldatutako Plana dagokion eraikuntza- eta hirigintza-proiektuaren bidez gauzatuko da.

B) Proposatutako Planaren Aldaketaren ezaugarriak aztertu ondoren, eta abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 31. artikuluekin bat etorriz, lege horren V. eranskinean ezarritako irizpideak aztertu dira, hain zuzen ere zehazteko ea Planak ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta behar duen ala ez.

1.– Planaren ezaugarriak, bereziki honako hauek kontuan hartuta:

a) Planak zenbateraino ezartzen duen proiektuetarako esparru bat: aurkeztutako dokumentazioaren arabera, Planaren Aldaketak ez dauka baldintzatzailerik, besteak beste, kokapen, ezaugarri, neurri edo funtzionamenduari dagokienez, etorkizunean proiektuen ingurumen-inkaktuaren ebaluazioari buruzko legeetan zerrendatutako kategoriaren batekoak diren proiektuak baimentzeko.

b) Planak zer neurritan eragiten duen beste plan edo programa batzuetan, hierarkizatuta dauden barne: Planaren Aldaketa 72.381 m²-ko azalera bizi-eremu urbanizagarriko sektore bati dagokio. 2007/60/EE Zuzentarautik eta Uholde Arriskua Kudeatzeko Planetik (UAKP) eratorritako baldintza sektorialak barne hartzen ditu; ondorioz, Ibaizabalen ibilguaren ondoan babesteko gune libre handi bat antolatzen du eta, bertan, Durangoko UAHerako aurreikusitako uholde-arriskuari aurre egiteko babes-jarduketak egongo dira. Planaren Aldaketa bat dator Kantauriko Konfederazio

Hidrografikoak uholdeen aurrean neurriak hartzeko definitutako urbanizazioaren muga-lerroarekin. Planaren Aldaketaren ezaugarriak kontuan hartuta, ez du ingurumen-eragin nabarmenik izango beste plan edo programa batzuetan. Ez da aurkitu plangintza nagusiarekiko bateraezintasunik.

c) Plana egokia den ingurumen-kontsiderazioak integrazteko, bereziki garapen jasangarria sustatzeko helburuarekin: Planaren Aldaketa egokitzat jotzen da garapen jasangarria sustatzen duten ingurumen-kontsiderazioak integrazteko; izan ere, eraikin berriek energia-aurrezpena eta -efizientzia sustatzeko praktikak bultzatuko ditu.

d) Planari loturiko ingurumen-arazo adierazgarriak: ez da hauteman Planaren Aldaketa gauzatzearen ondoriozko ingurumen-arazo adierazgarriak, betiere, eraginpeko eremuarekin lotura duten esku-hartzeak eta jarduerak, besteak beste, segurtasun eta osasunari, ingurumenari, hondakinen kudeaketari, kutsadura akustikoari eta kultura-ondarearen babesari dagokienez indarrean dagoen araudia betez gauzatzen badira.

e) Era berean, Plana egokitzat jotzen da Europako nahiz Espainiako ingurumen-arloko legedia txertatzeko.

2.– Ondorioen eta horien eraginpean gera daitekeen eremuaren ezaugarriak.

Planaren Aldaketaren eremua 72.381 m²-ko azalera duen Padureta sektoreari dagokio eta Bizkaiko lurreta udalerraren hego-ekialdean dago, Durango udalerriarekiko mugan. Hegoaldean Ibaizabal ibaia du mugakide, ipar-ekialdean Maspe kalea eta mendebaldean BI-623 errepidea.

Ingurumen-baldintzatzaile nagusia Ibaizabal ibaia da, zeina sektorearen hegoaldeetik pasatzen baita, ekialde-mendebalde norabidean. Zehazki, ibilguaren zati hori Durangoko UAHE gisa identifikatuta dago (ES017-BIZ-9-1 kodea) eta Paduretako ibarraren zati handi bat, non garapen berria aurreikusten baita, lehentasunezko fluxu-eremuan dago eta 10, 100 eta 500 urteko errepi-katze-denborako uholde-arriskua du.

Ekainaren 19ko 118/2006 Foru Dekretuaren bidez onartutako bisoi europarraren (*Mustela lutreola*) kudeaketa-planaren arabera, ingurune horretako sare hidrografikoa espezie horrentzako Interes Berezikoko Eremua da.

Aztertutako eremuan, lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten lurzoruen inbentarioan dauden 4 lurzati identifikatu dira (kodeak: 48910-00011, 48910-00012, 48910-00016 eta 48910-00157). IHOBek emandako informazioaren arabera, aipatutako lurzatiek lurzoruaren deklarazioa lortzeko espedienteak hasita dituzte, eta prozesu hori 48910-00016 lurzatiaren azterketa-eremuarekin bat datozen finketarako baino ez da amaitu (Ingurumen Administrazioaren zuzendariaren 2014ko maiatzaren 15eko Ebazpena, zeinak Bizkaiko lurreta udalerriko Maspe kaleko 9. zenbakiko orube bati dagokion lurzoruaren kalitatea deklaratzeko baitu, Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legean araututako prozeduraren arabera). Kokapen horren lurzoruaren kalitateari buruzko adierazpenaren arabera, bateragarria da parke publikoaren pareko erabilerekin, Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legeari jarraituz.

Gaur egun dagoen landaredia baratze, fruta-arboladi, zelai eta harizti azidofilo edo harizti misto gazte edo degradatuen mosaiko bat da eta, horrez gain, alfer-lurretan landaredi erruderala dago. Flora aloktono inbaditzaileko ale batzuk ikusi dira eta ibaiertzeko haltzadi eurosiberiarraren Bataunaren intereseko lehentasunezko habitataren lurzati txiki bat (91E0* kodea) hego-ekialdeko muturrean.

Ez da aurkitu bestelako baldintzatzaile aipagarririk: Planaren Aldaketak xede duen eremuan ez dago naturagune babesturik edo hezegunerik. Halaber, ez da interes geologikoko tokirik identifikatu, eta ez dago Igarobide Ekologikoen Sareko elementurik. Eremuan ez da kultura-ondarearen elementurik identifikatu. Sektorea kalteberatasun txikiko lekuetan dago, akuiferoaren kutsadura-arriskuari dagokionez.

Testuinguru horretan, obren fasean, okupatuko diren lursail berrietan dagoen landarediari eragingo zaio. Era berean, aldi baterako eraginak sortuko dira, adibidez: lur-mugimenduak egitean uren kalitatea gutxituko da, hondakinak sortuko dira, kutsatuta egon daitezkeen lurzoruetan lur-mugimenduak egitearen ondoriozkoak barne, ustekabeko isurketak sortzeko arriskua egongo da eta zarata, hautsa, bibrazioak eta abar areagotzearen ondorioz eragozpenak sor daitezke, besteak beste.

Sor daitezkeen ingurumen-arriskuei dagokienez, proposatutako antolamendua UAKPren zehaztapenetara egokitzen da, uholde-arriskua murrizteko Durangoko UAHEaren jarduketei dagokienez. Beraz, ez da aurreikusten jarduketa horiek gauzatzeak eremuan inpaktu esanguratsurik izango duenik Ibaizabal ibaiaren uholdeengatik.

Era berean, ez da aurreikusten ibilguan eta bisoi europarraren (*Mustela lutreola*) intereseko habitatean inpaktu esanguratsurik izatea, ezta kutsagarriak izan daitezkeen lurzoruen ondoriozko-rik ere. Ez da Batasunaren intereseko habitatik kaltetuko.

Eragin akustikoari buruzko azterlanaren arabera, ez dira betetzen aztertutako hiru denbora-tartearako (goiza, arratsaldea eta gaua) ezarritako kalitate akustikoaren helburuak (KAH), ez gaur egun, ez eta hemendik 20 urtera begira ere. Fatxadako soinurako ezarritako KAH balioak ere gainditzen dira. Neurri zuzentzaile gisa, BI-623 eta NA-634 errepideen aurrean pantaila akustikoak jartzea planteatzen da. Onura akustiko handia ekarriko duten arren, orduan ere KAHak urratuko dira, batez ere Maspe kaletik gertu dauden fatxadetan. Beraz, fatxadako isolamenduaren bidez beteko dira barne-espazioari aplikatu beharreko KAHak.

Ustiapen-fasean ez da aurreikusten proposatutako erabilera berrien ondoriozko eragin esanguratsurik.

Ondorioz, ingurumen-agiri estrategikoak planteatzen dituen zuzenketa- eta jasangarritasun-neurriak eta aurrerago zehazten diren prebentzio-, babes- eta zuzenketa-neurriak aplikatuta, ez da espero jarduketa horiek ingurumenean ondorio esanguratsurik izango dutenik, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legean aurreikusitakoari jarraikiz.

3.– Ebazpen honetan honako neurri babesle eta zuzentzaile hauek finkatzen dira, Planaren Aldaketak ingurumenean ondorio kaltegarri nabarmenik izan ez dezan eta lurretako Padureta etxebizitza-sektorearen Plan Partzialaren lehen aldaketari ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta egitea beharrezkoa ez izateko, betiere finkatutako neurri babesle eta zuzentzaileak barne hartzen baditu. Neurri babesle eta zuzentzaileak indarreko araudiaren, ebazpen honetan xedatutakoaren eta, aurrekoaren aurkakoa ez den orotan, ingurumen-dokumentu estrategikoan eta Planean bertan jasotakoaren arabera ezarriko dira.

– Hautemandako ingurumen-arriskuekin lotutako neurriak:

- Uholde-arriskua: proposatutako jarduerak Uholde Arriskua Kudeatzeko Planean (UAKP) ES017-BIZ-9-1 Uholde Arrisku Handiko Eremurako (UAHE) definitutako neurriak gauzatzearen baldintzapean geratzen dira. Ildo horretan, beharrezkotzat jotzen da Planaren Aldaketan baldintza bat sartzea: lurzoruak ezingo direla eraldatu, aldez aurretik UAKPko neurriak gauzatu ez badira.

Aurreko paragrafoan aipatutako muga berberak ezartzen dira jabari publiko hidraulikoaren zaintza-eremutik kanpoko uholde-arriskuko eremurako.

Nolanahi ere, uholde-arriskuari dagokionez, Planak kontuan izan behar du indarreko Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Plan Hidrologikoan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzekeo Lurralde Plan Sektorialaren E.2 apartatuan uholdeen aurkako babesari buruz ezarritako araudi espezifikoan xedatutakoa, bai eta Jabari Publiko Hidraulikoari buruzko Erregelamenduaren 14.bis artikuluan ezarritakoa ere, betiere alde batera utzi gabe administrazio hidrauliko eskudunak uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuak (Uraren Legearen testuategina onartzen duenak) 25.4 artikuluan aipatutako txostenean ezarritakoa eta Uraren Euskal Agentziak Uraren Legearen (ekainaren 23ko 1/2006) 7.k) artikuluan adierazitako txostenean ezarritakoa.

Planaren Aldaketak edo, halakorik ezean, horren garapenak, jasotzen den ur-bolumena jatorrian murrizteko prebentzio-neurriak aurreikusiko ditu. Horretarako, azalera iragazgaitzak mugatu dira eta drainatze jasagarriko sistemak ezarriko dira.

Ez da obrako instalazio lagungarriak jarriko (batez ere, makineria-parkea eta garbigunea) uholde-arriskua duten eremuetan, uholdeen errepikatze-denbora edozein dela ere.

- Kutsagarriak izan daitezkeen lurzoruen presentzia: lurzoruak kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten lurzoruen inbentarioan sartutako lurzatiei dagokienez, lurzoruaren kalitateari buruzko adierazpenetan xedatutakoa beteko da. Zehazki, 48910-00016 lurzatiari dagokionez –horren inguruko Ebazpena 2014ko maiatzaren 15ean eman zen–, etorkizunean kokagune horretan materialak hondeatu behar badira, hondeaketa-plan bat idatzi beharko da eta ingurumen-organoari oniritzia eskatu beharko zaio. Beste hainbat alderdiren artean, egin beharreko hondeaketa-planak hondeatu beharreko materialak kudeatzeko modu egokia jaso beharko du, eta kanpoko bada, karakterizatu egin beharko da, Hondakinak hondakindegietan biltegituta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuaren arabera.

- Ustiaketako zarata: Planean aurreikusitako etorkizuneko hirigintza-garapenak eremu akustiko horretan aplikatzekoak diren kalitate akustikoko helburuak bete beharko ditu, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 31.2 artikuluan xedatutakoaren arabera. Halaber, aipatutako 213/2012 Dekretuaren 43. artikuluan ezarritakoaren arabera, ezingo da baimenik eman etxebizitzak eta ospitale-, hezkuntza- edo kultura-erabilerrako eraikinak eraikitzeke, baldin eta, baimena emateko unean, kanpoan ez badira betetzen kalitate akustikoko helburu horiek, non eta ez den Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 43. artikuluan salbuetsitako kasuren bat.

Nolanahi ere, eraikinen barnealdean kalitate akustikoko helburuak betetzera bideratutako neurriak hartu beharko dira, eraikineko gelaren arabera (egongelak edo logelak) eta eguneko orduaren arabera (goizez, arratsaldez eta gauez). Fatxadaren isolamendu horiek behar bezala justifikatuta egon beharko dira eraikuntza-proiektuan.

– Ingurune hidrikoa babesteko neurriak:

- Ibilguen zaintza-eremuan eta jabari publiko hidraulikoan edozein obra edo lan egin aurretik, arroaz arduratzen den organismoaren administrazio-baimena beharko da.

- Jabari Publiko Hidraulikoan eta hura babesteko zortasun-eremuan ez da eragingo zuzeneko afektaziorik, ez eta zeharkako afektaziorik ere, sor litezkeen solido esekien edo arrastatutako edo jariatutako kutsatzaileen ondoriozkorik. Beharrezkoa izanez gero, jalkitzeke eta iragazteke

luzetarako hesiak jarriko dira, eta/edo dekantazio-putzuak, horien bitartez ingurune hidrikora askoz ekarpen solido gutxiago egiteko.

- Hiriko drainatze-azpiegituren bidez biltzen diren euri-urak, jabari publiko hidraulikoa kutsatu badezakete, hondakin-urak dira eta Administrazio hidraulikoaren aurrean isurketak baimentzeko prozedura bete beharko dute.

– Intereseko beste balio natural batzuk babesteko neurriak:

- Intereseko fauna-espezieak babestea: Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 19ko 118/2006 Foru Dekretuaren bidez, Bisoi Europarraren, *Mustela lutreola*-ren (Linnaeus, 1761), Kudeaketa Plana onesten duena, Bizkaiko Lurralde Historikoan, galtzeko arriskuan dagoen espeziea den eta babesteko neurri bereziak behar diren aldetik (BAO, 2006ko uztailaren 6koa), Bizkaiko Foru Aldundiaren aurretiazko baimena beharko du bisoi europarraren interes bereziko gunee-tako jarduera orok, baldin eta jarduera horrek espezieak erabilitako habitataren ezaugarriak aldatzea badakar.

- Intereseko landaredia babestea: Ibaizabal ibaiaren ertzeko landarediari eragitea saihestuko da. Obrak egiten hasi aurretik, zehaztasunez balizatu dira afektazioetatik salbu geratu behar duten landareak, bai eta inausketen eraginpean egon daitezkeen zuhaitzak ere, bota ez ditza-ten. Ez da zuhaitzik moztuko, ez eta belar-sastrakarik garbituko ere, zuzenean okupatzea aurreikusten ez den eremuetan.

- Obrek erasandako eremuak leheneratzea: proiektuaren gauzatzeak erasandako eremu guz-tiak leheneratuko dira, kendu diren landare-zuhaitzak birjartzea barne hartuta, halakorik egiten bada. Landareztatze-lanak ahalik eta lasterren egingo dira, higadura-prozesuak, solidoak ibilgue-tara arrastatzea eta espezie aloktono inbaditzaileen kolonizazioa ekiditeko. Bertako espezieak erabiliko dira; ibilguaren ondoan haltzadi kantauriarraren ezaugarriei emango zaie lehenta-suna, eta, eremuaren gainerako zatian, berriz, harizti azidofiloari. Jasangarritasun-irizpideak lehenetsiko dira, espezie inbaditzaileak sartzeko arriskua gutxitzearen. Landareztatze- eta lorategi-lanetan ez dira inola ere erabiliko inbaditzaileak izan daitezkeen espezie aloktonoak; esaterako, *Fallopia japonica*, *Robinia pseudoacacia* eta *Cortaderia selloana*. Leheneratze-lane-tan erabilitako landare-lurrak flora inbaditzaileko propagulurik ez izatea bermatuko da.

- Espazio libreen diseinua: espazio libreak berriz landareztatze, «Lorategi eta berdegune jasangarriak diseinatze eskuliburua» argitalpena hartuko da oinarritzat. Eskuliburua Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak ondu zuen.

- Espezie inbaditzaileen kontrola: identifikatutako flora aloktono inbaditzaileko aleak kenduko dira, eta eremuan eta inguruan ez hedatzeko beharrezkoak diren neurriak hartuko dira.

– Beste prebentzio- eta zuzenketa-neurri batzuk:

Bestalde, garapen-proiektuak gauzatzean aplikatuko diren neurriak loturik egongo dira obrak gauzatzeari, lurrak eta soberakinak kudeatzeari, hondakinak sortu eta kudeatzeari, induskatutako lurzorua kontrolatzeari eta urak, airearen kalitatea eta kalitate akustikoa babesteari buruzko jar-dunbide egokien eskuliburuarekin. Besteak beste, honako neurri babesle eta zuzentzaile hauek bete beharko dira Planetik eratorritako obrak gauzatzeko:

- Obrak, bai eta lurzoria erabiltzea eragiten duten lan osagarriak ere, proiektua gauzatzeko behar-beharrezkoa den gutxieneko eremuan gauzatuko dira. Beharrezkoak diren mozketa-lanak eta sastrakak garbitzekoak, obra-sarbideak irekitzekoak eta kontratistaren instalazio-guneak –makineria-parkea, obra-etxolak, obra-materialak aldi baterako biltegitratzeko gunea eta lan-

dare-lurrak eta hondakinak aldi baterako pilatzeko guneak barne– ingurumenean ahalik eta eraginik txikiena izateko irizpideetan oinarrituz egingo dira, eta, zehazki, Ibaizabal ibaiaren ertzeko bertako landarediari eragitea saihestuko da.

- Hondakinak sortzea eta kudeatzea: Hondakin eta zoru kutsatuei buruzko Legeak (uztailaren 28ko 22/2011) araututako moduan eta aplikatzekoak diren berariazko araudiek agindutako moduan kudeatuko dira obretan sortutako hondakinak, hondeaketetatik eratorriak barne.

Eraikuntza- eta eraispén-hondakinak Eraikuntza- eta eraispén-hondakinen kudeaketa arautzen duen Dekretuan (ekainaren 26ko 112/2012) xedatutakoaren arabera kudeatuko dira.

Industrian Erabilitako Olioaren Kudeaketa Arautzen duen ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuari jarraituz kudeatu beharko dira olio erabiliak.

Obretan hondeaketa-soberakinak sortzen badira, baimendutako soberakin-biltegi batera eramango dira, eta indarrean dagoen legediaren arabera kudeatuko dira.

Iurretako Udalari eta Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari jakinarazi beharko zaizkie lur susmagarriak detektatzearen ondoriozko kutsadura-arrasto guztiak, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 22.2 artikuluari jarraituz.

- Lurzoruak eta lurpeko urak babestea: prebentzio-neurriak eta neurri zuzentzaileak ezarriko dira obra-faserako, istripuzko isurien eragina saihesteko, bereziki makinaren mantentze-lanetan (material xurgatzaileak erabiltzea, isuriekin kutsatutako lurzorua kendu eta kudeatzea, etab.). Pilaketa-eremuak, instalazio osagarriak edo makinaren parkea azalera iragazgaitzetan kokatuko dira. Makinak iragazgaiztu gabeko eremuetan ez uzteko ahalegina egin beharko da.

- Kamioiek obran sartu eta irteteko erabiltzen dituzten bideak garbi mantendu beharko dira; horretarako, presioko ura edo erraztatzeako makina mekanikoak erabiliko dira.

- Zaratak, lanak egin bitartean: Zaratarari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duen urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuaren 22. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, zonakatze akustiko, kalitate-helburu eta emisio akustikoei dagokienez, obrak egitean erabiliko diren makinak egokitu egin beharko dira kanpoan erabiltzeko makinaren emisio akustikoei buruz indarrean dagoen araudian ezarritako aginduetara, eta, bereziki, egokitu beharko dira, hala badagokie, Kanpoan erabiltzeko makina jakin batzuek ingurumenean sortzen dituzten emisio akustikoak arautzen dituen otsailaren 22ko 212/2002 Errege Dekretuan (apirilaren 28ko 524/2006 Dekretuak aldatu du) eta arau osagarrietan ezarritakora.

Obrak egunez egingo dira.

- Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legean ezarritakoa gorabehera, jarduketak egiterakoan aztarna arkeologikoren bat egon daitekeela pentsarazten duen zerbait aurkitzen bada, lanak eten egingo dira badaezpada, eta berehala jakinaraziko zaio Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritzari; hark erabakiko du zer neurri hartu.

- Paisaian integratzea: ingurunearen ingurumen-ezaugarriak kontuan izanda, eta eraikuntza berria inguruko paisaian integratzeko asmoz, zenbait eraikuntza-baldintza zehaztuko dira (materialak, koloreak, morfologia, altuerak, bolumenak, etab.), bat etorriko direnak inguruneko eraikinen eta estetikaren tipologiarekin.

- Eraikuntzaren jasangarritasuna: eraikuntza eta eraikingintza jasangarriagoak egiteko behar diren ezaugarriak dagokienez, eraikuntza jasangarriako gidetan jasotako ingurumen-neu-

2021eko irailaren 16a, osteguna

rri eta -jardunbide egokiak erabiliko dira (<https://www.ihobe.eus/argitalpenak>), eraikinen energia-aurrezpen eta -efizientzia eta energia berriztagarrien sustapena bultzatzeko. Neurri horiek, gutxienez, honako alderdi hauetan eragin beharko dute:

- * Materialak. Lehengai berriztaezinen kontsumoa murriztea.
- * Energia. Iturri berriztaezinen bidez sortutako energia-kantitatea eta/edo energia-kontsumoa murriztea.
- * Edateko ura. Edateko uraren kontsumoa gutxitzea.
- * Ur grisak. Ur gris gutxiago sortzea.
- * Atmosfera. Gas-, hauts-, bero- eta argi-emisioak murriztea.
- * Barne-kalitatea. Barruko airearen kalitatea, erosotasuna eta osasuna hobetzea.

Bigarrena.— Zehaztea ezen, ingurumen-txosten estrategiko honetan ezarritakoaren arabera, eta Ebazpen honetan ezarritako neurri babesle eta zuzentzaileak hartzen badira, bai eta sustatzaileak proposatutakoak ere, aurrekoen aurkakoak ez badira, ez dela aurreikusten lurretako Padureta etxebizitza-sektoreko Plan Partzialaren barruko lehenengo aldaketak ondorio kaltegarri nabarmenik izango duenik ingurumenean, eta, beraz, ez duela ingurumen-ebaluazio estrategiko arruntik behar.

Hirugarrena.— lurretako Udalari ebazpen honen edukia jakinaraztea.

Laugarrena.— Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea. Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 31.4 artikuluan ezarritakoaren arabera, ingurumen-txosten estrategiko honek indarra galduko du eta berezko dituen ondoreak sortzeari utziko dio, baldin eta, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta lau urteko epean, lurretako Padureta etxebizitza-sektoreko Plan Partzialaren barruko lehenengo aldaketa onartzen ez bada. Kasu horretan, berriro hasi beharko da Planaren ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren prozedura.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko uztailaren 26a.

Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendaria,
JAVIER AGIRRE ORCAJO.